


Usaimen-nerbioa

Pituitarioko zelula hartzaileak

Pituitarioa



1. Erlazio-funtzioa hiru urratsetan garatzen da:

- ☐ Aginduak jaso, estimuluak eman eta erantzunak landu.
- ☐ Estimuluak jaso, erantzuteko aginduak landu eta erantzunak eman.
- ☐ Estimuluak landu, erantzuteko aginduak jaso eta erantzunak eman.

2. Erantzunak honako hauen bidez ematen dira:

- ☐ Hartzaileak.
- ☐ Efektoreak.
- ☐ Koordinazio-sistemak.

3. Horrela deritzegu nerbio-sistema osatzen duten zelulei:

- ☐ Zelula hartzaileak.
- ☐ Dendritak.
- ☐ Neuronak.

4. Ikusmenaren bidez...

- ☐ Argizko estimulak jaso ditzakegu eta objektuen formak, distantziak eta koloreak hauteman ditzakegu.
- ☐ Bibrazioak jaso eta objektuen formak, distantziak eta koloreak hauteman ditzakegu.
- ☐ Argizko estimulak jaso eta beroa, mina eta koloreak hauteman ditzakegu.

5. Horrela garatzen dugu oreka:

- ☐ Kanal erdi zirkularretako zelula hartzaileek gure posizioa igartzen dute, eta nerbio vestibularren bidez, seinaleak bidaltzen dituzte burmuineraino.
- ☐ Barraskiloko zelula hartzaileek gure posizioa igartzen dute, eta nerbio vestibularren bidez, seinaleak bidaltzen dituzte burmuineraino.
- ☐ Kanal erdi zirkularretako zelula hartzaileek gure posizioa igartzen dute, eta hezurtxo-katearen bidez, seinaleak bidaltzen dituzte burmuineraino.

6. Pituitariora eta dastamen-papilak dira...

- ☐ Sudur-hobietan dauden usaimenaren organoak.
- ☐ Dastamenaren organoak eta mihian, ahosabaian eta faringean daude.
- ☐ Usaimenaren organoa eta dastamenaren organoa, hurrenez hurren.

7. Nerbio-sistema honako hauetan banatzen da:

- ☐ Burmuinak eta ornomuina.
- ☐ Nerbio-sistema zentralak eta nerbio-sistema periferikoak.
- ☐ Burmuinak eta nerbio-sistema periferikoak.

8. Garun-enborrak...

- ☐ Modu automatikoan egiten ditugun mugimenduak zuzentzen ditu.
- ☐ Borondatezko mugimenduak kontrolatzen ditu.
- ☐ Aginduak eratzen ditu efektoreek borondatezko erantzunak eman ditzaten.

9. Hezurak...

- ☐ Hezurrek artikulazioekin batera eskeletoa osatzen dute.
- ☐ Hezurak bi motatakoak izan daitezke, luzeak edo laburrak.
- ☐ Hezurak ehun bigunaz eta hezur-ehunaz daude osatuta.

10. Honako hauek hanketako muskuluetako batzuk dira:

- ☐ Koadrizepsa eta aduktorea.
- ☐ Bizkarrekoa eta laprana.
- ☐ Esternokleidomastoideoa eta trapezioa.